

## Nafarroako bertsolari txapelketa 1995

Igaz bezala eta gure ohiturari jarraituz aurten ere badugu Nafarroako Bertsolari Txapelketa eta Martxoaren 5-ean eman zaio hasiera Alduden.

Aurten bi Taldetan berexi dituzte bertsolariak. Talde bakotxa zortzi bertsolarikin.

Hemen Txapelketan ariko direnak:

### A Taldea

Mixel Aire «Xalbadon»  
Ernest Alkat  
Fermin Mihura  
Jean Pier Mendiburu  
Manolo Arozena  
Xabier Silbeira  
Amaia Telletxea  
Xabier Legarreta



Manolo Arocena.

### B Taldea

Bittor Elizagoien  
Jose Fermin Argiñarena  
Jesus Arzallus  
Jean Louis Hariñordoki  
Iñigo Olaetxea  
Josema Leitza  
Eztiñu Arozena  
Eztiñu Fernandez

A Taldea aritu da Alduden joan dan igandean 5-ean atsaldeko 4etan. Azken txandarako gelditu diranak, Manolo Arozena, (695,5 punturekin) eta Mixel Aire «Xalbadon» (644 punturekin).

B Taldea ariko da Martxoaren 12-an, bihar, Doneztebnean, atsaldeko 5-etan.

Finalaurrea Martxoaren 19-an Barañanen, Atsaldeko 5-etan.  
Finala Leitzañan, Apirilaren 2-an

atsaldeko 5-etan.

Epaia maia ere izendatua dago eta aurten zortzi lagunek osotuko dute maia: Hemen epai-maia: Mixel Itzaina, Jean Pier Etxegoien, Beñat Soule, Jose Urroz, Mikel Bujanda, Aingeru Epaltza, Patxi Arretxea, Jon Abril. Idazkari lana Mixel Altzuarek egiten du.

Urtero bezala aurten ere ongi negurtuak izanen dira bertsolariak. Badituzte mota guzietako gaiak, bertsolarien lanak negurtuak dituzte eta segur gara bertsolarien kantaldia guzien gañekoa izanen dela. Bertze urtetan bezala gure Txapelketak garrantzi handia dauka, bertsolarien artean bada zaletasuna eta gure Txapelketak arrakasta handia ukanen du.

Igaz Bittor Elizagoienek irabazi zuen Txapelketa, aurten nor Txapeldun?

M. Izeta

## Lodosa'ko ikastola izar berria

Lodosa delako iri ederra, Nafarroa'ko egoaldean, Ibero ibai nagusiaren ondoan daukagu ezarria; arkaiz galanta iparaldera, egoaldean ibaia, tarte ortan zelaitxo. Erria tarte ortan dago eraikia, inguruan baratza aberatsak. Iri onek 4.500 biztanle ditu. Sendi aunitzek piper gorriak eta zainzuriak lantzen dituzte.

Berri jakingarria jaso nuena: Ikastola iriki dutela Lodosa'ko irian, Erriberan. Euskararen zabalkundea agertzen du orrek.

Euskaldun gutxi daude bertan, baiñan ba dira aztarna batzuek. Ara edantokien izenak: Toki-berri, Kukusumusu, Gurea. Enparaqntza batek «Txapalangarra» dauka izena. Euskal abizenak telefonoliburuan asi nintzan billa: 1.053 izenetik 350 euskaldunak dire, eundik ogeitamaru. Ikus nolako antza daukaten: Agirre, Amatriain, Azkona, Baigorri, Eraso, Gainza, Iriarte, Lizaso. Zabala, Zurutuza eta abar.

Ikastola, enparantza nagusian arkitu nuen, etxe berri batean, lenengo bizitzan; gela ederrak, jolas-toki zabala. Amasei aur zeuden lanean, bi irakaslekin (neska mutilla). Andereñoa, Añe Santze, Etxarri-Aranaz'tarra da. Ikastolaren asieratik dago emen. 1968'garren urtean jaio zen. Eziketa ikasketak dauka egiñak goi mallako Ikastetxe Nagusian Donostia'n. Irakaslea, berriz, Isaac Etxeberri, Goizueta'tarra da. Ogeitazortzi urte ditu. Magisteio ikasketak zituen egiñak. Lodosa'ra aurten etorri da Lizarra'ko ikastolatik. Anmoreño Añe tas Isaac irakaslea euskal aurrelariak dire Nafarroa'n, Ibero ibai nagusien ondoan.

Lodosa'n, ikastola nola sortu zuten jakin nai nuen. Berriak biltzeko, bi guraso arduradunekin bildu nintzen. Sofia Martinez da laguntzalle benetakoa, Jerez'en (Andaluzia) jaioa da 1958'garren urtean. Lau urtekin ekarri zuten Iruña'ra. Euska-



Lodosa'ko ikastola.

ra, Iruña'n entzun zuen eta guztiz ederra iruditu zitzaion. Irakaslea da eta bi neska ditu ikastolan. Beste etxeakoandrea Arantxa Garjon da, Txantrea'n, 1957'garren urtean jaioa. Aitona, Pako Eparza, Artajona'tarra zeukan. Txikia zela, aitonak erraten zion: «Arayo-demonio-Kristo zikiña-ixilik egon». Arantxa'ri oso atsewgin zitzaizkion euskal itz oyek. Arantxak alaba dauka ikastolan. Ikastolaren asieraren berri abek eman zizkidaten. Iru etxeakoandrea Casino Peña delakoan, elkarrekin biltzen ziren, baita gogoz ikastolako gaia aipatzen; Karmen Drona Semat'arra, Karmen Rodriguez Lododa'tarra (senarra Donostia'ra du, Azkona jauna) ta Sofia Martinez Lodosa'ra ezkundua.

Lenengo urratsa: Sartaguda'tarra ba zeukaten orduko ikastola ta nai zuten zabaldu. Karmen Rodriguez'ekin mintzo dira.

Bigarren urratsa: Zortzi gizaseme, Ekainaren asieran, 1991'garren urtean, Kasinoan biltzen dire. Sartagu-

da'tik guraso bat dator eta bi andereño, Ikastolen Fundaziotik idazkaria Juan Luis Larraza Etxarri Arnatz'tarra Lodosa'tik, lau guraso. Ikastolako eziketa, egokia bezala aipatzen dute. Aur txikiekin-astea ongi iduritzen zaie. Gurasoekin bertze bilerara sortzea erabakitzen dute; orotarako eskutitzak eta iragarkiak egin bear, baita aurren izen zerrenda Errikoetxetik lortu.

Irugarren urratsa: Ekainaren bukaerna, 1991-garren urtean zazpi guraso bultzen dira. Lizarra'ko ikastolaren zuzendaria datorkie solas egitera, guraso batekin, Jose Maria Sesma. Itzaldaren gaia: Ikastolako eziketa egokia.

Laugarren urratsa: 1991-garren urteko ikastaroan irikitzeko dute: Ikastola. Sei aur datoz ta andereño Añes Santze; Avenida de Navarra 31 delako etxean asten dire lanean. Gaur amasei ikasle dituzte.

Izar berri bat jaio da, Nafarroa'ko ortzian, euskararen arloan.

Latxaga

## Berri ona

### Jainko esperientzia

«Mendira joan zen otoitz egitera» (LK. 9, 28-36)

**D**UDARIK gabe gizon-emakumeak otoitz egiten du. Era batera edo bestera gizakia Jaungoikoarekin arremanetan jartzen da. Iñork ez du Jainkoa aurkitzen billatzen ez badu, eta billaketa orrek Otoitza du izen.

Ala ta guztiz ere, ez bedi iñor arritu sinisgabeziaren zenbakiak gora ta gora egiten badute. Zer galtzen dute Jaungoikoarengandik aldentzean? Zer ukatzen dute Jaungoikoa ukatzean?

Onuragarria da bizitzan Jaungoikoa gurea dela sentitzea, Jaungoikoaren esperientzia izatea.

Jaungoikoarekin bat egiten duzunean, ordea, ez duzu deus uleretzen. Otoitzaren bidez Jaungoikoarekin bat egiten dugunean gu ez gera gu, Jainkoa bera da guregan eta gurekin bat egiten duena. Eta aundia da, itzez eta idazkiz erran eziñekoa.

Galdera au egiten dut: nork ez du izan bizitzan une eder eta gozorik? Nork ez du izan eta nork ez du bizi Jaungoikoaren gertutasuna? Nork ez du egin otoitz sakonik? Nor ez da sentitu erabat aldaturik?

Jaungoikoaren esperientzia izateko, ordea, entzuten jakin bear. Eta entzun, isiltasuna egiñez entzuten da. Entzuteko bearrezkoa da gure barnean pakea egitea, gure buruarekin baretasunean bizitzea.

Ez noa ni aurrerapena ukatzea; are gutxiago aurrerapena txarra dela erratera. Ez. Aitortu bearrean aurkitzen gera, ordea, aurrerapen onek gizakiari ikaragarritzko zarata eta burrunda ekarri diola.

Aurrerapenak isiltasuna irentsi egin du. Ez da erreza toki egoki eta aukerarik billatzea isiltasuna lantzeko, isiltasuna egiteko, isiltasunean Jaungoikoarekin eta gizakiarekin arremanetan jartzeko.

Isiltasunak gizakia osatu egiten du. Isiltasuna garatu duan pertsona askoz ere elduagoa da. Isiltasuna landu duenak urkoari goxo eta errespetuz entzungo dio. Eta isiltasuna landu duenak Jainkoaren billaketa orretan bide aundia dauka egiña.

Pertsona bat lanpeturik, nekatuta, kezkatuta bizi denean bere baitako kartzelan sartuta bizi da. Pertsona orrek besteekin arremanetan jartzeko kapazidadea galdu du.

Eta Jaunaren Itza isiltasunean entzuten da. Jakiña da, otoitza biren kontua dela. Maite diren bi biotzen kontua da. Otoitzean itzezin bakarrik ez dugu egiten... Jaungoikoari itzeziten utzi bear diogu.

Nun entzun, ordea, gaur Berri Ona? Nun eta nola jarri Jaunaren Itza entzuteko? Nun topatu aske egiten Jaunaren Itzarekin?

Garizunak aukera ederra ematen digu isiltasunean egun batzuk igarotzeko; edota Jainko esperientzia egiteko. Nola? Joan zindezke monastegi batera, gogo-jardunak egitera, ezindu edo gaisoei laguntzera... Zergatik ez?

Artzalluz'tar Joxemari

## Albiste laburrak

«Javierada» izeneko ibillaldiak napa gazteen biotzak pizten dituala adierazteko, bertara urbiltzen dan jendetza ikustea naikoa. Aurtengo lenengo, joan dan larunbat-igandean ospatu zan, eta bi egun oyetan egin zuan elurra, kazkabarra ta otza ikusirik, ez da arritzekoa igaz baño jende gutxiago joatea. Asko ta asko izan ziran, asmorik sutsuenakin abiyatu ta jarraitzea burugabekeria zala-ta, dana bertan bera utzi ta etxeratuak. Aipatzekoa, 71 urte dituan Carlos Elizalde'k, urterik utsik egin gabe, berrogeita amasei urtetan ibillaldia egin izana. Gaur eta biar, eta giroa obearekin noski, bigarren «Javierada» burutuko da.

Tren ttiki askorekin gertatu dan berbera gertatu da Iruña-Soria-Madrid bidea egiten duanarekin; azken aldi arte ezezkoa esaten jardun arren, azkenean, trenbide ortan, Iruña'tik Castejon birtateko tartea kentzea erabaki da; Castejon-Soria-Madrid trenak, berriz, jarraitu egingo du, izan ditzaiken galera guztiak, Castilla-Leon'go Jaurilaritzak Renfe'ri ordainduko dion itza eman ondoren. Iruña-tik Soria'n barrena Madrid'a dijoan tren ori, larunbatetan eta igandetan bakarrik ibiliko da. Abiya aundiko trenak, beste bi urtean itxoin bearko du, napa-lurretan sartzeko.

Iruzun-Amdoain'go autobiataz, berriaz, albiste onak ditugu. Nafarroa'ri dagokionean, Urriaza'n egin zan tune-laren okerrak, galtzairuzko 50 kable aundi sartzearekin, erabat zuzenduta geldituko omen dira; lan oyek, datoren illaren bukaerarako amaituta egongo dira. Gipuzkoa'ri dagozkion amasei kilometroak ere, iya bukatu-keak daude; galipota botatzen asiak dira, eta uste denez, Iorallaren bukaerarako, au da emendik bi illabeterako

biak batera alkartzeko ta irikitzeo egokiera izango dan uste osoa dago.

«Euskera betiko mintzoa» izenburuarekin, Nafarroa'ko Jaurilaritzaren Izkuntza Zuzendaritzak eratuta, Nafarroa kaleko Magisterio zarrean, erakusketa bat irikia dago eta biar itxiko da. Erakusketa onen elburua, «euskarak beti bizirik iraun duala, historian zear eta orain, eta etorkizun iturria dala adieraztea». Alli lendakariak iriki zuan eta ara bertako gayak: Nafarroa'n antziñan, izkuntza eta kultura ezberdiñak, pakean bizi izan ziral; toki-izenak, euskal-kutsu bereziarekin, euskeraren zabaltasuna adierazten du; Napa-Erregetza eta euskera; euskeraren iraupenean Elizaren eragiña; euskera galtzearen arrazoyak, eta azkenik, «Itxaropenezko etorkizuna».

Ogeita iru urteko gaztea dan Alberto Aniz Diaz'i zorionak emanaz asi bear degu albiste ortan; ikasketak, 23 matricula de honor, 5 sobresaliente eta 3 notable atera ondoren, bi sari nagusi bereganatu berria da: bat, Ekonomi

arloan España guztiko Kariera Bukae-rako Sari Nagusia, eta Nafarroa'ko Ikastetxe Nagusiko Ekonomi Sari Berezi-Berezia. Lanean asia bada ere, -ikasketak bukatu ta bigarren egunera lantokia eman zioten-, gaztea dala eta aukera on bat egiteko egokiera etorriko dalakoan dago, patxaran, batere presarik gabe; ori bai: sendi-bizitza eta lagun-arte, ez ditu inola ere baztertu nai.

Kirol-esparruan, Antton Maiz esku-pilotari jatorrari egin dioten omenaldia aitatu gabe nola utzi? Bazkari batekin asi ta, pilota-lekuan bukatu zan; eskeñi zizkieten opariak ainbat eta ainbat izanik, arritzekoa al da, ain gizon aundia izan arren, malkoei eutsi eziñik egon izana? Bilbao'ko Deportivo pilota-lekuan, Retegi II lagun zuala, Titin III ta Arretxeren aurkako jokaldian, lau tanto jokatu zituan, eta lau ta uts zijoazela, bere orde, Errandonea jarru ta 18 ta 12 irabazi zuten. Maiz'ek pelota-lekua utzi zuanean entzundako txalokada, ez du berealakoan aztuko. Zorionak bein da berri!

Berri-emalle

## Nafarroako Bertsolariak, Donezteben

Malerrekako Langarra Euskara Taldeak hilaren 12an Donezteben eginen den Nafarroako Bertsolari Txapelketaren kanporaketa girotzeko zenbait ekitaldi antolatu du:

Ortziralean, martxoaren 10ean, Xabier Amurizaren mintzaldia izanen da, Doneztebeko liburutegian, arratseko 7,30etan. Mintzaldiaren gaia: «Egungo bertsolaritza eta txapelketak».

Igandean, martxoaren 12an,

eguerdian trikitilariak kalejiran ibilikodira Doneztebeko, Karriketan barna. Ordu bietan, bazkaria izanen da Arjupeak jubilatutako elkarrearen egoitzan. Herri bazkarirako txartelak Malerrekako zenbait herritan paratu dituzte saigai: Sunbilla Bustitz ostatuan, Donezteben Belarra kafetegia eta jubilatuen ostatuan, Zubietan Herriko ostatuan, Iturenen Herriko ostatuan, Donamarian Herriko ostatuan eta Elgorriagako ostatuan.